


DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU



ADIORIK GABE

Hitzak eta hotsak oroibide



BAKEA
PAZ

donostiakultura.com

ADIORIK GABE Donostia 2016ren Bakearen itsasargiak sustatutako ekimen bat da. Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen bizitzen oroimenezko hiru ekitaldik osatzen dute. Ekitaldi horiek oroimen eta aitortza barne-hartzaileko adierazpen kolektibo bat izango dira, giza eskubideekiko errespetuzkoa.

Ángel Jesús Mota Iglesias, Ramón Díaz García, Marijose Bravo del Valle eta Francisco Javier Gómez Elóseguren memoria musikal edo literarioaren berreraikitze-lan bat egin nahi izan dugu, adiera zabal eta libre batean ulertuta, eta horren emaitza da orain zuei atsegin handiz aurkezten dizueguna.

Haien senideekin batera egindako eraikitze-prozesu bat izan da hau. Senideekin elkartu eta, eskaini dizkiguten lekukotzen bitartez, arte horiei (musika eta literatura) lotutako haien sentsibilitateak bildu nahi izan ditugu, pieza eszeniko batzuk berariaz sortzeko asmoz: gaur ikusgai dituzuenak, hain zuzen. Donostiak, pertsona haiek bere baitan hartu zituen hiriak, honela nahi ditu oroitu. Indar osoz. Haien familiek haiekin partekatutako bizitzak –hain bidegabeki etenak izan ziren bizitza haiek– oroimenean gordetzean ageri duten indar berarekin.


Eskerrak eman nahi dizkiegu Adiorik gabe ekimenean parte hartu duten familiei, beren bizipenetan eta hain maiteak zituzten pertsonen oroitzapenetan partaide egin gaituztenean agertu duten berotasunagatik eta eskuzabaltasunagatik.

Ekimen hau antzeko egoerak bizi izan dituzten familia guztientzat babeslekua eta bihotz-gozagarria izatea nahiko genuke, nahiz eta jakitun garen luzea dela prozesua, gizartearengandik erantzun ezberdinak eskatzen dituela une bakoitzean, eta familia guztiak ez daudela prozesuko puntu berean. Bihoakie haiei guztiei ere gure oroipena.

«Errealitatea ezagutzeko, errealitateaz kargutzeaz eta errealitatea kargatzeaz gain, errealitatearen kargu ere egin behar da»

Ignacio Ellacuria

Kursaal, Donostia, 2016ko abenduaren 18a.



ÁNGEL JESÚS MOTA IGLESIAS

ETAK erail zuen Antiguán 1990eko martxoaren 13an egindako atentatu batean, egun bat geroago hil zen horren ondorioz.

Lantokian eta etxean, iratiak ekarri zizkien Mota-Iglesias familiakoei musika eta albisteak. Bozgorailu txiki horretatik irten ziren musika-obra bikainak eta munduko gertakarien berriak, urrunekoak eta familiaren arima bete-betean eta bat-batean hunkitu zutenak. Gure gaurko irratsaioan Ángel da hizpide eta omendu, eta melodia eta hitz hauek ez ditu haizeak eramango.

Iñaki

Pianoa, gidoia eta zuzendaritza:

Iñaki Salvador

Antzezleak: **Ana Pimenta** eta
Kike Díaz de Rada

Abeslaria: **Loyola Garmendia**

Argazkiak, familiak lagatako

irudietan oinarrituta: **David**
Salvador

RAMÓN DÍAZ GARCÍA

ETAk hil zuen, Loiolan, 2001eko urtarrilaren 26ean.

*Bi mundu ipini nahi izan ditut uztarri bakarrean, zure bi munduak,
gorputzez txikia izanagatik, zure bihotzaren handian askorentzako
lekua zegoelako. Horregatik kokatu dut zure bigarren etxean,
Loyolataran. Aitzakia dirudi, baina hori da errealitatea, urtero
elkartzen direlako zure senideak eta adiskideak zu oroitzeko. Izan
ere, bihotz handiek neurri bereko hutsuneak uzten dituzte joaten
direnean. Ez omen dago ezinbestekoa den inor, hala diote, baina
batzuek hain beharrezkoak zarete... Uzten dituzuen hutsune horietan
bizirik darraizuelakoan nago. Espero dut omenaldi honen ondoren
betiko biziko zaren hutsune gehiago irekitzea. Eskerrik asko, Ramón.
Ezagutu gabe ere zure falta sumatzen dut.*

Teresa

Gidoia eta zuzendaritza: Teresa Calo

Antzezleak: Amaia Fernandez eta

Martxelo Rubio

Irudiak: Joserra Camacho

MARIJOSE BRAVO DEL VALLE

Batallón Vasco Español hil zuen Loiolan 1980ko maiatzaren 7an.

Izar uxoa

Gure bizitzaldien laburrak maiz dirudi izar uxo bat, ezustean igarotzen dena.

Zu ere ustekabeen etorri zinen, Marijose, agian, gurasoek espero ez zutenean. Horregatik, zu jaiotzeak zorionez bete zituen.

Gogoan dugu zure lorratza, denbora asko igaro den arren, eta argiz eta distiraz beteago ageri zaigu aurrera egin ahala, 16 urte zenueneko bizitzako ilusio haiekin akordatzen gara eta.

Alabaina, izartegiaren ordena, giza ulermenaren miresmenik eta harridurarik handienak eragin ditzaketen arauak, edertasuna eta perfekzioa dituen, gertakari esplikaezin eta irrazional baten kausa bihur daiteke; erremediorik gabe desagertzea ekar dezakeen patu beltza.

Bizitza, modu bidegabe eta lazgarrian etenda, zuen ametsen bidea bezala, zurea Javirekin batera.

Baina zure ametsak eta bizitzaren oroipenak ez dira galdu, ez dira gure memoriatik desagertu.

Jaio zinen iheskortasun horrek garamatza gure gogoan zu bilatzera, gure asmoetan behatzea, eta desio bat eskatzen dizugu, usteak agintzen duen eran, begiak itxita... Itxita? Beharbada denbora gehiegi egin dute itxita...

Joxan

Gidoia eta zuzendaritza: Joxan Goikoetxea

Dantza: Ainhoa Aldai

Dantza eta koreografia: Ander Lizarralde

Koreografia: Ana Remiro


Abeslaria: Ainhoa Larrañaga

Antzezlea: Garazi Aldasoro

Gitarra: Iosune Marin

Proiekzioak eta argiztapena:

Sendoa Lusarreta



FRANCISCO JAVIER GÓMEZ ELÓSEGUI

ETAk hil zuen, Grosen, 1997ko martxoaren 11n.

*Deitzerik bagenu, aldian behin, zure kontuen berri eman
zeniezagun... Zer moduz zauden bageneki... Zu ukitzerik bagenu,
sikiera abestietan, eta zure ahotsa ez balitz oihartzun urrun hori.
Gaur, abenduak 18, 57 urte beteko zenituzkeen honetan, zorionak
ematerik bagenu...*

*Bada, begira, gaur, Gonzalo Suarezzen hitz eder hauekin gogoratu
gara: «Gizakia errealitateari dagokio, baina fikzioa besterik ez
dagokio gizakiari»... Eta zuri deitzea erabaki dugu. Zuri deitzea,
elkarrekin solasean ari garela imajinatzeko. Erantzungo ahal duzu!
Deiari noiz erantzungo zain geratuko gara...*

Laster arte.

Mireia

Gidoia eta zuzendaria: **Mireia Gabilondo**
Antzezlea: **Kepa Errasti**
Pianista: **Juantxo Zeberio**

Irudiak: **Maialen Sarasua**
Argiztapena: **Xabier Lozano**

FRANCISCO JAVIER GÓMEZ ELÓSEGUI

Asesinado por ETA en Gros el 11 de marzo de 1997.

Ojalá pudiéramos llamarte de vez en cuando y que nos contaras tus cosas... Ojalá supiéramos cómo estás... Ojalá pudiéramos tocarte aunque sea en canciones y ojalá que tu voz no fuera ese eco lejano. Ojalá, también, que hoy 18 de diciembre, que cumplirías 57 años, pudiéramos felicitarte...

Pues, verás, hoy, recordando unas hermosas palabras de Gonzalo Suarez “El hombre pertenece a la realidad pero sólo la ficción pertenece al hombre”..., hemos decidido llamarte. Llamarte para imaginar que estamos hablando contigo. ¡Ojalá te pillemos!

Esperando que nos cojas la llamada...

Hasta dentro de un rato.

Mireia

Guión y dirección: **Mireia Gabilondo**

Intérprete: **Kepa Errasti**

Pianista: **Juantxo Zeberio**

Imágenes: **Maialen Sarasua**

Iluminación: **Xabier Lozano**

MARIJOSE BRAVO DEL VALLE

Asesinada por el Batallón Vasco Español en Loiola el 7 de mayo de 1980.

Estrella fugaz

Nuestras efímeras vidas nos recuerdan muchas veces al paso de una estrella fugaz, que se produce inesperadamente.

Tú también llegaste de improviso, Marijose, tus padres quizás no lo esperaban. Y por eso tu nacimiento fue una bendición para ellos.

La estela de tu recuerdo, ya lejano en el tiempo, se hace más luminosa y brillante a medida que nos adentramos en ella y rememoramos las ilusiones vitales que mostrabas a tus 16 años de edad.

Pero el orden del firmamento cuyas reglas, cuya belleza y perfección consiguen cautivar las más altas cotas de admiración y asombro del entendimiento humano puede tornarse a veces de modo inexplicable e irracional en otro devenir, el del fatal destino que le puede llevar a la extinción de modo irreversible... Una rutina existencial injusta y brutalmente truncada como la senda de vuestros sueños, el tuyo junto con Javi...

Pero tus sueños y los recuerdos de tu vida no se han desvanecido, no han desaparecido de nuestra memoria. Y es esa fugacidad con la que naciste la que nos lleva a buscarte en nuestras conciencias y a observarte en nuestras voluntades para pedirte un deseo tal y como rezan las creencias, con los ojos cerrados.... ¿Cerrados? Quizás han pasado demasiado tiempo cerrados...

Joxan



Guión y dirección: Joxan Goikoetxea

Danza: Ainhoa Aldai

Danza y coreografía: Ander Lizarralde

Coreografía: Ana Remiro

Cantante: Ainhoa Larrañaga

Actriz: Garazi Aldasoro

Guitarra: Iosune Marín

Proyecciones e iluminación: Sendoa

Lusarreta

RAMÓN DÍAZ GARCÍA

Asesinado por ETA en Loidiela el 26 de enero de 2001.

He querido juntar dos mundos, tus dos mundos, porque abarcabas mucho con ese cuerpo menudo de corazón grande. Por eso lo sitúo en tu “segunda casa”, la Loyolatarra. La excusa está sacada de la realidad, porque cada año tu familia y tus amigos se juntan para recordarte. Los corazones grandes dejan muchos huecos vacíos cuando se van. Nadie es imprescindible, dicen, pero algunos sois tan necesarios... Yo creo que en esos huecos que dejáis, seguís viviendo. Y espero que después de este homenaje se abran más huecos donde vivas siempre. Gracias, Ramón. También, sin conocerte, te echo en falta.

Teresa

Guión y dirección: **Teresa Calo**

Atriz: **Amaia Fernandez**

Actor: **Martxelo Rubio**

Imágenes: **Joserra Camacho**

ÁNGEL JESÚS MOTA IGLESIAS

Asesinado en el Antiguo por ETA, en un atentado cometido el 13 de marzo de 1990, a consecuencia del cual falleció un día más tarde.

La radio puso en el trabajo y en el hogar de los Mota-Iglesias la música y las noticias. Desde el pequeño altavoz brotaron grandes obras musicales y se narraron los sucesos del mundo, desde los más lejanos hasta los que tocaron, de lleno y de repente, el alma de la familia. Hoy nuestro programa de radio habla de Ángel y para Ángel, con melodías y palabras que no se lleva el aire.

Iñaki

Piano, guión y dirección:

Iñaki Salvador

Actriz: **Ana Pimenta**

Actor: **Kike Díaz de Rada**

Cantante: **Loyola Garmendia**

Fotografía: **David Salvador**, a partir de imágenes cedidas por la familia

SIN ADIÓS es una iniciativa impulsada por el Faro de la paz de San Sebastián 2016 consistente en la organización de tres actos de recuerdo de las vidas de víctimas del terrorismo y la violencia que supongan una expresión colectiva de memoria y reconocimiento incluyente y una manifestación de respeto a los derechos humanos.

Hemos realizado un ejercicio de reconstrucción de la memoria musical o literaria, en el sentido más amplio y libre, de Ángel Jesús Mota Iglesias, Ramón Díaz García, Marijose Bravo del Valle y Francisco Javier Gómez Elósegui, cuyo resultado es el que hoy nos complace presentaros.

Este ha sido un proceso de construcción compartido con sus familiares. Nos hemos encontrado con ellos para, a través de sus testimonios, recoger sus sensibilidades vinculadas a las citadas artes (música y literatura) con la idea de crear ex profeso unas piezas escénicas que son las que se representan hoy. San Sebastián, la ciudad que les acogió, desea recordarles de esta manera, mostrando toda la fuerza con la que sus familias atesoran los recuerdos de las vidas que compartieron y que fueron tan injustamente truncadas.

Queremos agradecer a las familias participantes en Sin adiós el calor y la generosidad con la que han compartido las vivencias y recuerdos de sus seres queridos con nosotros.

Nos gustaría que todas las familias que han sufrido circunstancias similares se sintieran acogidas y reconfortadas por esta iniciativa, aunque entendemos que no todas se hallan en el mismo punto de un proceso que es largo y que, en cada momento, necesita distintas respuestas por parte de la sociedad. Para todas ellas es también nuestro recuerdo.

«Se conoce la realidad cuando, además de hacernos cargo de la realidad y de cargar con la realidad, uno se encarga de la realidad»

Ignacio Ellacuria

Kursaal, San Sebastián, 18 de diciembre de 2016.



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU



SIN ADIÓS

Música y letras para recordar



BAKEA
PAZ

donostiakultura.com